

xeppio

2006ko ekaina - 5. zenbakia



Goizuetako
aldizkaria

Goizuetarrek
euskara bihotzean
eta mingainean

zenbaki honetan



- **3**.....Aurkezpena
- **4-6**.....Azaroko ferian ere, Bai Euskarari
- **8-11**.....Haiek bai garaiak!!! Edo ez?
- **12-15**.....Etiopian zehar
- **16-17**.....Ezetz asmatu eta pertsonai ezkutua
- **18-19**.....Txoko-sex
- **20-22**.....Saioa Tabernari elkarrizketa
- **23**.....Txisteak
- **24-25**.....Hizkuntzaren jabeakuntza
- **26**.....Bai Euskarari Akordioa
- **28**.....Zure txanda

- **Argitaratzailea:** Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzua
- **Diseinua:** Allende Arnaiz
- **Maketazioa:** Igor Astigarraga
- **Laguntzaileak:** Goizuetako, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzua

- Nafarroako Gobernua:
- Hezkuntza eta Kultura Departamentua
 - Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia



Bosgarrena hemen da

UDABERRIA ailegatu da. Garai ona batzuentzat eta ez hain ona beste batzuentzat, alergiak ditugunentzat ez da hain garai ona. Haurrek jadanik kalean pasatzen dituzte ordu gehienak. Kaleak jendez betetzen hasten dira. Baina oraindik ere badira egun ilunak eta hotzak. Egun horiek Xapo irakurtzeko parada ezin hobea ematen digute.

XAPO aldizkariaren bosgarren zenbakia jadanik kalean da, Goizueta guztiek disfrutatu dezazuen. Nabaria da Goizuetako jendeak Goizuetako jendearentzat egina dela, ukitu berezia du. Hori gauza nabaria da bertakoak ez garenentzat.

Xaporen 5. zenbakia. Beste horrenbeste eta gehiago ere egingen ditugulakoan, lanean jarraitzen dugu. Zenbaki honetan, aurrekoetan bezalaxe, Goizueta eta bertako kontuei begiratu bat ematen ahalegin du gara. Herriko gaien inguruko informazioa ematea da gure helburua, gaiak plazaratzea, herriko bizitza soziala ezagutaraztea, eta, jakina, eztabaida sortu eta piztea.

Eta, bestalde, Xapoko zenbaki honetan zer? Bada, ohi bezala, denetik pixka bat. Elkarrizketa (Saioa Taberna), hizkuntza jabeakuntzaren inguruko hausnarketa, txistek, Goizuetako berriak, atzokoak eta gaurkoak; eta Etiopiara egindako bidaia zoragarriaren inguruko kontakizunak. Horietaz guztietaz gainera, ohiko

atalak: ezetz asmatu, pertsonaia ezkutu...

Xaporen zenbaki honetan, adibidez, hizkuntza jabetzeko prozesua hartu dugu hizpide, besteak beste. Bestalde, azken urteotan euskararen inguruan eskualdean egin den ekimenik garrantzitsuenetako bat ere aipatuko dugu. Bai Euskarari Ziurtagiriaz ari gara. Bai Euskarri egitasmoa herriko jarduera guztietan nabarmentzen da, Goizuetako herriak euskararekiko hartu duen konpromiso irmoa erakutsiz.

Saioa Tabernak etxetik urrun, Leuvenen (Belgika), izandako esperientzia kontatu digu. Erasmuseko ikaslea izateak baditu bere abaintailak, baina etxeakoak eta herrikideak ezin dira ahaztu. Non ba Euskal Herrian baino hobe?, gauza batzuetarako bai behintzat. Zuek zer uste duzue?

Aldizkari honetako beste gai bat: euskararen ofizialtasuna. Gezurra badirudi ere gaur egun oraindik euskararen ofizialtasuna aldarrikatu beharra dugu. Nafarroan euskara eremu euskaldunean da soilik ofiziala eta Iparraldean leku bakar batean ere ez. Hori guztia dela eta, Oinarririk taldeak euskara Euskal Herri osoan ofiziala izan dadila aldarrikatu du. Hemendik zuek ere euskararen ofizialtasuna aldarrikatzera animatu nahi zaituztegu.

Beraz, aurkezpen honetan gehiago luzatu gabe, on egin.

5





euskara

Azaroko ferian ere, Bai Euskarari





GIRO EDERRA eskoletan 2005eko azaroaren 26ko azinda eta artisau feriko egunean, goiz-goizetik, hotza latza bazen ere. Herritarrak eta ingurutik etorritako batzuk frontoi erdia betetzen zuten postuen atzean. Beste erdian, gero bazkarirako mahai eta aulkiak, ia larehun jalerentzat. Frontoi ingurrun ere, janari (talo, gazta, ontto...) eta animali (ardi, ahuntz, zaldi, beti-

zu...) postuak ez ziren falta, bestelako ikuskizunak atzendu gabe: muztioa eta belar-meta nola egiten ziren, zerria nola hiltzen zen erakusten zigutenak edota buztina lantzeko aukera ematen zigutenak, besteak beste.

Jende franko inguru guzian, ze ikusi. Bateri galdetu, besteari esan. Bateri kaso egin, besteekin mintzatu. Eta, gehienak, euskaraz.

Horren erakusgarri bezela, frontoi-

ko txoko baten zintzilik, lotsati antzera bino tinko, "Bai Euskarari" pankarta edo hormirudia.

Pankarta, "Bai Euskarari" 2005-2006 kanpaina konprometituak daudenak oroitzeko. Hormirudia, "Bai Euskarari" 2006-2007 kanpaina sartu nahi dutenari dei egiteko. Artikulu xume honen bidez ere, Bai Euskarariren inguruan ari direnak saritu nahi dira, nolabait.



Izan ere, beti burutan ez badugu ere, tarteka oroitzea komeni. Goizuetako 20 establezimendutako tabernari, dendari, saltzaile eta bestelako langile asko beren eguneroko lanean eskuara denen eskura jartzen saiatzen dira. Horretarako konpromiso zehatz batzuk hartzen dituzte eta urtearen buruan bete dituztela frogatu behar dute. Eta beren lanaren erakusgarri, “Bai Euskarari Ziurtagiria” dute.

Ematen duenez, euskara eta lan mundua ez dira oso ongi moldatzen. Baina euskarak aurrera segituko badu, beharra den hortara ere iritsi behar du. Lanik gabe euskara ere ez baita biziko. Biziko alor guztiak landu gabe ez baita izango. Horregatik da hil ala bizikoa, gure ttikian, egunerokoan egiten duguna: euskarari eremu berriak irabazteko bidexidorrak urratzea, euskara eta lana “hobeki moldatzeko” haziak ereinez.

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA. DATU BATZUK

- Euskara beren lanean bertatzeko neurriak hartzen ari direla ziurtatzen du.
- Hiru maila zehazten ditu, establezimenduek euskara beren lanean zenbateraino integratua duten erakusten dutenak:
 1. Bidean: euskaraz lan egiteko bideak jartzen ari direnek eskuratzen dute.
 2. Guk zerbitzua euskaraz: zerbitzua euskaraz ematen dutenek.
 3. Guk zerbitzua eta lana euskaraz: zerbitzua eta lana euskaraz egiten dutenek.
- Urte baterako ziurtagiria da. Horrek esan nahi du urtero dagoe-la aukera berritzeko eta aurretik ez dutenek lortzeko.
- Maiatza-ekainean izanen da berriz ere izena emateko aukera, beraz, erne betazalak!

“ norberak matten din **BALOREZKO GAUZA** bat.

esplikatzeko **ZALIA** . norberan ustez **OSTIAN GAUZA**

dena **TA** bestentzat **DEUSEZ** . **ESPERIENTZIA**

ESTETIKOA . **KOMUNIKATZEKO** modua.

BEREXIN MUNDUA . **NO KOMENT** !

ISPIRAZIOA beharragatik atetzen den gauza .

NORBERAK enteintzen dun zerbette . /

SENTIMENTUK adierazteko . gizakik asmatutako

EZAUTZA bat . **DENA** . ”



8

atzera begira



Haiek bai garaiak!!!!

Edo ez?

A IMAR Olaizolak 12 urte zeuzkanean T'tipi-ttapak egindako elkarrizketarekin eman genion hasiera atal honi. Beti aurrera begiratu behar dela diote askok, baina gu, atzera begiratzea ere interesgarria eta komenigarria izan litekeelakoan gaudete. Beraz, Xaporen V.ale honetan 1995.urtean Goizuetan igarotakoa azalduko dizuegu. Horretarako T'tipitparen kronika erabili dugu.

Kiroletako berriak aipatzen zituen T'tipi-ttapak 1995.eko lehenengo alean. Umore Ona futbol salako taldeak, lehenengo itzuli kaxkarra egin zuen Gipuzkoako II.mailako txapelketan, baina Ibon Elizegi delegatuak itxaro-



pentsu begiratzeko bigarren faseari. Umore Onako pilota atala alde-rantziz, zoriontsu zegoen, Estatuko klubaren arteko txapelketan lehenengo mailara igotzea lortu baitzuen berriki.

Gizarte gai on batekin zetorren hurrengo kronika. 1994an 12 haur jaio ziren herrian, eta aurreko urtean sortutako kopurua bikoiztu zuen. Naturak ongi eutsi zion gainera orekari, erdiak eta erdiak baitziren neska eta mutikoak.

Aurten bezalaxe, Otsailaren 26tik 28ra ospatu ziren orduan ere inoteak. 800.000 pezetako aurrekontuarekin. *(1 argazkia)*

Umore Ona elkarteak bestalde, ohi-ko batzarra ospatu zuen otsailaren bukaeran. 50 bazkide bildu ziren bertara eta Patxi Olaizola, Miren Huizi eta Jon Etxegia hautatu zituzten batzorderako.

Mozorroen taldeak eta Gazte Asanbladak berriz, "Trabuko" talderekin dantzaldia antolatu zuten korrika 9.aren alde. *(2 argazkia)*

Martxoan eman zuen Udalak Arte eta Kultura kanpainaren berri. "Balerdi-Balerdi", "Bittor Aiape" eta Iturriaga, Elortza, Arozena eta Lujanbioren emanaldiak iragartzen ziren Ttipi-ttapan besteak beste.

Gazte Asanbladak berriz paleta txapelketa mistorako izen emateko deialdia egin zuen.

Eskolako neska-mutikoen gurasoek asaldatuta zebiltzan garai horretan. 16 urte arteko hezkuntza derri-gortzen zuen legea hurrengo kurtsoan sartzekoa zen indarrean, eta bi urteko ziklo berri hori egitera Nafar Gobernuak Leitzara eraman nahi zituen Goizuetako gaztetxoak. Hori adieraztera etorri zen herrira Olano, Iruñeko ordezkaria, baina ez zuen gurasoen baietarik eraman, hitza hartutako guziek ikasketa hauek Gipuzkoan egitearen aldekoak baitziren.





Apirileko kronika berri onez bete zatorren. Nafarroako Gobernuak antolatutako literatur lehiaketan gure herriko bost gaztetxok eskuratu zituzten saririk potoloenak. Saio, Eneritz, Jonek, Maite eta Mikelek poltsikoak ederki bete zituzten urte horretan. **(3a argazkia)**

Pilotan berriz, bi garaipen handi: Labriten jokatu ziren Nafarroako afizionatuen arteko txapelketaren finalak, eta Asier Olaizolak bikotekakoa irabazi zuen Fernando Goyarekin eta Juantxo Apeztexeak buruz burukoa. Umore Onak mus txapelketaren sari-dunak, berriz, ondoko argazkian daude. **(3b argazkia)**

Kiroletara bueltatuz esan 9 taldek izena eman zutela apirilaren 24an hastekoa zen futbito txapelketan. Patxi Zabalak bestalde, 11 urterekin, Nafarroako haur kantari txapelketaren finala irabazi zuen bere mailan, eta Euskal Herrikoan kantatzeko aukera eman zion horrek.

Politika ere ukituz esan, ekainean egin ziren Udal hauteskundeetarako H.B.ek bakarrik aurkeztu zuela zerrenda. Pili Untxalo zen alkate gai.

Hiur urteren buruan bertso afaria antolatu zuen Euskaltegiak herrian. Lizasok eta Egañak kantatu zuten eta 2000 pezeta balio zuen afarirako txartelak banatu ziren.

Mendi bizikletaren ibilaldiaren edizio berri bat ere hilabete horretan egin zen.

Legealdia betetzear zegoela eta, lau urteko gestioaren berri emanez txostena aurkeztu zuen Udalak. 111 miloi pezetako inbertsioak egin omen ziren %94.5eko subentzioarekin bataz beste. 18 etxebizitza babestuen gestioa, Asinco erostea eta Alkainzuriaingo bidea hormigoitza sartzan ziren akzio garrantzitsuenen artean.

Ekainean eman zuen Joxe Javier Etxeberriak Zokoz-zoko izeneko diapositiba emanaldi arrakastatsua. Eta hilabete horretan bertan, 50 goizuetar joan ziren Burgosko kartzelara



Juan Miel Apezetxearengana. 15 urte zeramatzan espetxean Juan Mielek ordurako.

Uztaileko kronikan pilotari buruzkoak ziren berri nagusiak. Hilaren 2an Joxe Julian Salaberriak profesionaletako bere lehenengo txapela lortu zuen, eta egun berean, Olaizola anaiek Elgetako torneoan jokoan zeuden bi txapelak eskuratu zituzten. Gainera, aste bete lehenago, Juantxo Apezetxeak Sestaon, “Federazioaren kopa” irabazi zuen.

Abuztuaren 14tik 19ra festak, beti bezalako programa ederrarekin, eta Iraileko Ttipi-ttaparen lehen aleak zionenez, Ceferino Alba uztera zihuan Goizueta-Hernani autobus linea. Udala kezkatua zegoen gai honekin eta Iruñarekin hizketan hasia zen.

Hilabete berean beste berri potolo bat: Udalak eta E.H.N.ek sinatutako hitzarmenaren arabera, 63 haitze errotako parkea eginen zuten Loitzate mendian. Diru sarrera polita suposatuko zukeen horren udalarentzat.

Urrian, zaharren eguna ospatzeaz gain, Xabier Legarretak zuzendutako bertso eskolak ikasturtea hasi zuen 11 ikaslerekin. Eta berriz ere pozik handiena pilotarien eskutik etorri zen, Juantxo Apezetxeak buruz buru, eta Asier Olaizolak binaka, urrezko domina lortu baitzuten Iruñan jokaturako “Munduko kopa” txapelketan. Urte ederra izan zuen hura Juantxo eta Asierrentzat. **(4 argazkia)**

Azaroan, euskaraz idatzitako 1897. urteko udal ordenantzak agertu zirela zioen Ttipi-ttapak. Herriko etxeko artxiboak eratzten ari ziren orduan, eta ordenantzez gain interes handiko dokumentuak azaltzen ari ziren armairu zaharretan. Aste batzuk lehenago hasitako eskulan ikastaroko



emakumeen argazkia ere bazetorren herriko kronikan. **(5 argazkia)**

Azaroarekin bukatzeko esan, Agustin Narbartek irabazi zuela oilagor lehiaketa 3 piezarekin, eta Herri olinpiadak, 6 talde lehian, arrakasta ikaragarria lortu zutela. Andoni Etxenike, Mikel Elizegi, Maria Jesus Zabala, Juan Tomasena, Agustin Perez eta Ramon Lujanbioren taldea suertatu zen garaile.

Eta abenduan ere pilota. Kluben arteko Estatuko txapelketako oho-reko dibisioan jokatzeko eskubidea irabazi zuen Umore Onak, eta hori lorpen handizat jo zen, lan denboralditan igo baitziren goizuetarrak hirugarren mailatik gailurrera.

Beno, eta haxe izan da dena. 1995. urteko gertakari guziak ez ditugu aipatu izanen, baina aipatutako guziak gertatu zirela segurua da. Hurrengo Xapon 1996. ari emanen diogu errepasoa. Bien bitartean ongi izan.

ETIOPIA

GURE BIDAIA 2004ko uztailean hasi genuen. Hilabete batez ibili ginen Etio-pian zehar. Badirudi hilabete bat nahikoa dela herrialde bat ezagutze-ko, baina afrikan dena gutxi da. Gauza asko daude ikusteko eta bizitzeko eta garraio arazoak direla eta egunak nahi gabe joaten dira.

Etiopia hiru pusketan bana dezakegu.

- **Iparraldea:** Berdea, menditsua eta historikoa. Lehenengo kristauen lurraldea. Ikusgarria benetan.
- **Hegoaldea:** munduko triburik harrigarrienak eta beste kulturekin kontakturik gabe jarraitzen dute.
- **Ekialdea:** Islam'aren lurraldea. Lehorra eta beroa. Hiri sakratuez josia.

Loiutik atera eta Franfurren geldialditxo bat eginez 21:00 etan iritsi ginen Addis Abebara. Airetik ilusita izugarritzko inpresioa egin zigun, 5 kale bakarrik daude hirian argi indarra dutenak. Herrialde bateko hiriburua horrela baldin badago, pentsa nola egongo diren gainerontzeko hiri eta herriak. Dena den ikusgarria zen bertako aireportu berri eta modernoa. Aireportutik atera bezain laister somatzen da nola dagoen herrialdea: oso behartsua da, ia ia ez dago errepiderik, horrez gain jendea kalean bizi da baina ala ere segurtasun handia dago kaleetan. Harrituta begiratzeko gintuzten seguru-erik zera pentsatuz: "Zer egiten hari dira zuri hoiak gure herrian?"

Oso turista gutxi daude eta hori jendearen begiradan igertzen da. Oraindik ez daude turismoaren eragin ekonomikoaren menpe.





Addisen hasi genuen bidaia. Hiriburu honek harrituta utzi gintuen. Afrikako hiri modernoena egin nahi izan zuten hemengoa eta hasiera batean horrela izan zen. Etxe altuak, kale zabalak, erainkin instituzional asko, ... bainan intentzioan gelditu zen.

Gaur egun airetik modernoa ematen du, bainan kaleetatik zoazenean dena utzia dagüela konturatzen zara.

Addis ez da oso polita eta zonalde gutxi batzu ere baditu harriskitsuak. Hiri honek kontraste haundiak ditu: txabolen auzo baten erdian afrikako luxu haundiena duen Sheraton hotela topatzen da.

Addisetik Bahar Dar´era joan ginen. Hiri hau Tana lakuaren ertzean dago. Livinston famatua hemen ibili zen Niloaren sorreraren bila. Hiri honetan bi gauz egin daitezke: Tana lako irletan dauden monastegiak bixitatu eta Tissit Sat´eko ur jauziak ikusi. Ura gainezka duten ur jauzi hoiek Nilo Urdinaren jaiotzaren ondean daude.

Egun batzu beranduago mendi aldera joan ginen, Gondar hiri inperiala ikustera; bertako palazioak, gazteluak, eleizak eta abar ikus daitezke. Kontutan izan behar da Afrikan horrelako eraikuntzak ez ohizkoak direla eta horrek bereziagoa egiten du. Handik La Libelara joan ginen: Honen fama bere elizengan dago. Bertako Elizak orain dela urte gutxi arte ez ziren deskubritu. Nahita lur azpian gordeta zeuden eginak Elizak hoiek kristauak ez ziren inork ez topatzeko eta ez suntsitzeko.

Bertara iristea zaila da batez ere Etiopiako garraiobide eskaxengatik, eta herriaren kokapenagatik, (ia 3.000 metrotara dago kokaturik). Eleiz ikaragarri hauek eskuz taituak harrian daude, Etiopiako Kristauen peregrinazioko leku garrantzitsuena da. Horrez gain, oso leku mistikoa eta berezia da. Batez ere igande goizeko mezeetara joanez gero. Bertan Eli-

zara txuriz joateko ohitura dute eta izugarria izan zen goizeko 6etan jende pila bat ikustera mendietan zehar Eleiz aldera inguratzen txuriz jantzita ikustera espektro batzu izango balira bezala egunsentian.



Iparraldean zehar ibili ondoren Addisera bueltatu eta hegoaldera zuzendu ginen. Hegoaldeko Tribuak ezagutzera. Iparraldeko bidaiak gogorra izan arren bagenekien Hegoaldekoa ez zela gutxiago izango. Sasemenene, Bob Marleik famatua egin zuen Rasten Herriatik pasatu ginen. Oraindik ere Rasta pilo bat bizi dira bertan eta oso kuriosoa da. Izan ere Bob Marleik esaten zuenez bere kante-tan Abisinia (oraingo Etiopia) zen beraien desioetako herria. Lehenengo 400 km autobusez egin genituen, linea bukatzen zen arte. Goizeko 4etan atera eta gaueko 9:30 tan iritis ginen. Hemen hasi ginen benetako Afrika ikusten. Bidai honetan lurralde ikusgarriak zeharkatu genituen, lakuak eta urezko sumendiak besteak beste. Hegoaldeko bidai honetan aurkitutako tribuek ez dute antzeman denboraren aldaketa eta aipagarrienak Karo, Mursi, Surma, Konso, Hamar, Dorze, e. a. Hemen jarri ginen lehenengo afrikar esploratzaileen larrualdean. Gehienak larrugorritan eta gorputzeko hainbat leku adornuz jantziak ibiltzeko ohitura dute.

Animali piloa ere ikusi genuen. Baina ikusgarriena munduko kokodriloko handienak ikustea izan zen. 7 metrotara iris daitezake!

Hegoaldea ikusitakoan ekialdea joateko asmoa genuen baina uste baino azkarago pasa zitzaizkigun egunak eta Euska Herrira bueltatzeko ordua ere. Gutxi gora behera hiru egun kalkulatu genituen hegoaldeko iparraldera egiteko, hau da 600 km egiteko eta hortxe hortxe ibili ginen.

Ikusgarria da benetan herrialde hau eta bertara bidaiatzea animatzen zaituztegu. Kontutan hartu beharrekoa da zerbitzu gutxiengo eza eta aintzineria itzulelarazten zaituela. Badaude herri asko urik ez dutenak. Botilako urik edo Koka kolarik topatu ez dugun leku asko daude Etiopian eta hori gaur egun oso leku gutxitan ikusten da.





EZETZ ASMATU

Eta? Asmatu al zenuen Xapo aldizkariko aurreko alean agertzen zirenak nor ziren? Ez zen, bada, oso zaila! Argazki bat edo beste aspaldikoa zen eta horrekin lanak izango zenitzuzten zuetako batzuek, baina gainerakoan oso errazak ziren. Horregatik, oraingoan zailtxeagoa jartzea erabaki dugu. Neuronei noizbehinka astindu bat ematea ona izaten da osasunarentzat. Hementxe dituzue beste argazki batzuk. Zuen herriko jendea ezagutzen duzuela frogatzeko. Ea asmatzen duzuen. Animo!

PERTSONAI EZKUTUA

Batzuetan errazegi jarri dugu, beste batzuetan zail. Ez dago beti asmatzerik. Nolanahi ere, zaila edo erraza den oso subjektiboa da, ezta? Zuri akaso zaila egingen zaizu, baina zure ondokoak berehala asmatuko du. Ezinezkoa, behintzat, ez da, eta saiatur gero ziur atzean nor dagoen asmatzen duzula.







Eta neskek ere masturbatzen al dira?

E MAKUMEAK —bikote laguna daukatenak eta ez dutenak— gizonak bezalaxe, masturbatzen dira. Logikoa! Gertatzen dena da, ezin dutela esan. Gizarte hau ez baitago prest erantzun hori entzuteko.

Bada, nerabe eta gazteek euren sexualitateaz hitz egiten dutenean, mutilek egun guztia eskua gora eta behera mugituz pasatzen dutela diote. Aldiz nesken artean, inortxo ere ez da masturbatzen. Baina pixka bat sakontzen hasten garenean, errealitateak azkar eramaten gaitu ondorio desberdin batera: mutilak esaten dutena baino gutxiago masturbatzen direla eta neskek, diotena baino askoz gehiago. Logikoa!

Baina zergatik guzti hau? Mutilek egitea ondo ikusita dago. Baina neskek berdina egitea ez. Berrito ere gure gizartearen exigentzi maila ez da berdina bientzat. Mutilek lagunen artean pajillak botatzearen inguruan goitik exageratzen dutenean, oso ongi ikusita dago, eta badirudi trofeoak irabazten dituztela. Aldiz, neska bati berdina egitea bururatuko balitzaioke, garrindonga edo putilla gisa katalogatua izango litzake.

Kultura honek ez du benetako erantzuna jakin nahi, ez ditu begiak ireki nahi. Beldurra daukate, nes-

kek bakarrik goza badezake, jada ez duela beste norbaiten beharrik izango (gizonezkoena, alegia). Baina zorionez, gauzak aldatu dira eta aldatzen ari dira. Azken urteetan, emakumeak euren diskurtso propioa sortzen ari dira eta lotsik gabe hitz egiten. Eskerrak!

Gizonezkoen arrazoi berberagatik masturbatzen dira emakumeak: gorputzak eskatzen dielako, gozatzuten dutelako, inori minik egiten ez dielako eta euren buruarekin hobeki sentitzen laguntzen dielako. Eta noski, gero hobeto lo egiten dutelako!

Sexualitatea bizitzeko bi modu daude: bakoitzak bere buruarekin goza dezakeena eta beste norbaitekin konpartitu dezakeguna. Ez dira inkompatibleak, ezta bereizgarriak ere. Beraz, goza dezagun bietaz!

Baina nola masturbatzen dira emakumeak?

Gizonezkoek nola egiten duten argi daukagu. Baina nola egiten dute emakumeek? Gizon batek baino gehiagok esango lukeen moduan: "Argi dago, emakume bati gustu gehien ematen diona ondo sartzea da. Beraz, gizon batekin ez badaude, zanahoria bat edo botila bat sartzen dute txulotik orgasmora iritsi arte. Logikoa da, ezta?" Eta nola ez, informazio hau, azkar pasa-

tzen da ahoz aho. Suposatu dezakegu, urteen eta esperientziaren bitartez, gai honen inguruko ezagupen maila aldatzen dela, baina ez neskek. Dirudienez, gizonezkoak ez dira aldatetaren aldekoak eta bizitza osoa pasatzen dute emakumeak baginatik gozatu behar dutela pentsatuz.

Emakumeari bere sexualitatea ezeztatu zaio milurteetan. Makina bat kontsideratua izan da, lana eta umeak izateko makina bat bezala. Orain aldiz, gizakia dela eta gainera sexualitatea sentitzen duela argi geratu denean, gizonezkoek insistitzen dute emakumeen sexualitatea gizonen zintzilikarioaren menpe dagoela. Hau da, zintzilikario gabe, galduta daude emakumeak!! Horregatik iruditzen zaie zintzilikarioa ez daukatenean, zanahori edo botilen beharra dutela.

Ba oker zaudete mutilak! Emakumearen gehiengoak ez dute ezer sartzen baginan, -ez behatzak, ez objekturik- masturbatzen direnean. Orduan nola egiten dute? Ba euren gunerik sensibleena, erogenoena, eszitanteena laztanduz, ukituz: KLITORIA! Emakumeek ez dituzte gauzak sartzen baginan masturbatzean, benetan erotzen dituen klitoria delako. Hor bai bilatzen dutela nahi zutena! Klitoria da,

emakumezkoen plazerraren fokua !!!

Gainera, badaezpada, klitoria ez dago baginaren barnean. Kanpoan dago, baginatik kanpo. Eta sarketan ez dago modurik zakilak klitoria ikutzeko, laztantzeko edo estimulatzeko. Inola ere ez. Ezta kamasutraren azken posturarekin ere. Zergatik? Klitoria, kanpoaldean dagoelako, goialdean, kanpoko ezpainak goialdean bateratzen diren lekuan.

Hala ere, honek ez du esan nahi emakumeek sarketarekin gozatzeko ez dutenik. Esaten duguna da, emakumeek ez dutela zergatik sarketarekin korritu eta orgasmoa iritsi behar. Eta horretantxe datza gizonen akatsa, uste horretan.

Beraz, klitoria, plazerraren artefaktoa dugunez, behatzen puntekin, edota almoadan xuabe batekin maitasunez mugituz, laztanduz, igurtzi suabeak, presio eta erritmoak -haundituz- dira emakumezkoen pasio ero baten osagaiak.

Hortaz, aztertzen, miatzen eta gozatzeko duzuen guztia, bakarrik gozatzeko izateaz gain, norbaitekin banatzeko garaian, benetan baliagarria izan daiteke.

Beraz, bon appetit!



Euskal Herria bezalakorik ez da

SAIOA Taberna goizuetarrari elkarrizketa.

• **Zertara joan zinen Leuvenera?**

Ikastera dudarik gabe! Eta ez unibertsitateko ikasketak soilik. Dudan jartzen dut ze ikasi dudan gehiago, enpresaritza eta ingelesa EDO bizitza buruz.

• **Zer ikasten ari zara?**

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzaren azken urtea. Dena

gainditzen badut ekainean lizentziatuko naiz.

• **Eta ondoren ze asmo dituzu?**

Lanean hasi nahi nuke, jada adina badut eta.

• **Non bizi zara eta zer bizimodu duzu Belgikan?**

Leuven Bruselasetik 20km-ra dagoen herri batean bizi naiz. 150.000 biztanle inguru ditu eta hauetatik 50.000 ikasleak gara. Ber-

tako hizkuntza ofizial bakarra "Flamenco"-a da. Jendeak ingelesez badaki baina informazio guztia Flamencoz dago.

Estudio txiki batean bizi naiz eta bertan ohe bat, sukalde txiki eta komona dauzkat. Oso bakarzalea (independiente) naiz eta ez naiz damutzen bakarrik bizitzea aukeratu izanaz. Gainera, nere etxean 24 ikasle bizi gara bakoitza bere estudioan eta nahiz eta estudioan bakarrik egon, bizigiro paregabea daukagu.



• **Goizueta eta Leuven-en artean zeinekin geratzen zara?**

Nik uste ezin direla konparatu, biak herri ezberdinak dira eta bakoitzak gauza ezberdinak eskeintzen ditu. Hala ere, Leuven gabe biziko nintzateke, Goizueta gabe ez.

• **Zer hizkuntza erabiltzen duzu Leuven-en?**

Egia esan, pentsatu euskaraz, hitz egin gehienbat erdaraz, ikasi ingelesez eta tarteka frantzes pixka bat.

• **Damutu al zara hara joatearen erabakia hartu izanaz?**

Ez, inondik inora. Gainera badakit esperientzia honek ate asko irekiko dizkidala. Niretzat hau “reto” bat da eta espero dut gauzak nahi bezala ateratzea.

• **Zer da han ikasi duzun gauzarik hoberena?**

Hoberena ez dakit baina gauza asko ikasi ditut, besteak beste, etxeko lanak egiten (sukaldean gehienbat), “burua” ere asko ireki dit eta nire buruari buruz ere asko ikasi dut. Ingelesa ere bai noski.

• **Zergatik etortzen zara hain maiz EHra?**

Je je! Edozein hutsune harrapatzen dut familia eta lagunak ikusi eta parranda pare bat botatzeko. Euskal Herria bezalakorik ez da.

• **Zer moduzkoa da hango jendea?**

Egia esan nik Belgekin baino harreman gehiago dut beste edozein lurraldeko jendearekin. Belgak oso itxiak dira eta jendearekin oso gutxi erlazionatzen dira. Hala ere jatorrak dira. Gainontzeko jendea ere oso jatorra eta irekia da, egia esan ezin naiz kexatu.

• **Bai al duzu hango norbaitekin gertatutako selebrekeriarik?**

Beno, selebrekeria edo... Txinoak oso bereziak dira. Beraien kultura oso ezberdina da europarrekin alde-



«Egia esan nik Belgekin baino harreman gehiago dut beste edozein lurraldeko jendearekin.

Belgak oso itxiak dira eta jendearekin oso gutxi erlazionatzen dira. Hala ere jatorrak dira»

ratuta eta aerobik egiteko modua ere bai. Euskal Herrian ez da haien hankak altxatuko dituen guzarik!

• **Ta zer moduz moldatzen zara denborarekin?**

Egia esan nahiko juxtu ibiltzen naiz. Hemen 24 ordu niretzat edukitzen han oso gutxi edukitzera pasa naiz: unibertsitateko klaseak, hizkuntz eskola, arropa labanderian garbitu (honek 2 ordu kentzen dizkit), janaria prestatu... Nik beti esaten dut nire egunari 2 ordu falta zaizkiola.

• **Zer kosta zitzaizun gehien uztea?**

Herria, lagunak eta familia. Hiruetako bat gabe ez naiz deus ere!

• **EH eta Belgika konparatzerik bai al dago?**

Noski baietz. Biek hizkuntza baten alde borrokatzen (Belgikan Flamenkoa eta EHn euskara), biek herri txikiz beteta, bietan euria ugari, biek oso berdeak... Eta jendea ere bietan oso jatorra. Hala ere, ezberdintasun bat badago: han dena Flamencoz egiten da, hemen zoritxarrez dena euskaraz ez.

• **Han nola garraiatzen duzue eguneroko bizitzan?**

Jende guztia bizikletan ibiltzen da. Harrigarria da! Uste dut nik izan ezik gainontzeko ikasle guztiak bizikleta alokatu dutela! Nirea kotxea da eta faltan botatzen dut.





«Taberna batzutan 30 klase zerbeza ere badaude. Edale finak dira, Euskal Herritarrak bezala. Hala ere parrandara ateratzen garenean gure poteoaren martxa ez du inork jarraitzen!»

• **Zer dituzu nahiago, Leuveneko edo Goizuetako parrandak?**

Konparatzerik ez dago! Goizuetakoak noski. Beno, egia esan gogoia eta lagunak dauden tokian parranda txarrik ez da. Han gogoia bai, baina hemen bezalako lagunak falta! Ez dut hemengoan neurri arimatzan den inor aurkitu. Beraiek egindako “despedida” itzela izan zen, ez dut inoiz ahaztuko.

• **Beno, eta Belgikako mutilak zer moduzkoak dira?**

Egia esan ikaragarri motiko politak daude, hango arraza rubio-begi urdiña da baina nik orandik soltera

jarraitzen dut. Ez dut batere prisarik e! “Hay que besar a muchas ranas antes de encontrar al principe”!

• **Zer botatzen duzu gehien faltan?**

Gauza asko: komunikatzeko erraztasuna, lagunak, familia, Goizuetako paseoak... Ta aman ta amonen jana-ria noski.

• **Leuven-en gustora al zaude?**

Oso gustora, herria agitz polita da eta ni erraz egokitu naiz bertara. Bertan daramatzadan 5 hilabetetan ez dut malkorik bota, ez naiz inoiz bakarrik ezta triste sentitu ere.

• **Aukera izanez gero bueltatuko al zinateke Euskal Herrira?**

Ez eta erotuta ere. Goizuetan egoteko bizi guztia daukat, Leuvenen egoteko aldiz urte bat bakarrik. Hau aprobetxatu beharra daukat.

• **Zer moduz moldatzen zara sukaldean?**

Egia esan asko ikasi dut. Goizuetan bizi nintzenean dena amak egiten zidan baina beharrak erakusten omen du eta nire kasuan hala izan da. Oinarrizkoa prestatzen ikasi dut. Hala ere orandik ez zait amonari bezalako baberna gorrikerik atera!

• **Bidaiarik egin al duzu?**

Orain arte Belgika eta Holandan mugitu naiz gehien. Nahikoa lan izan dut ingurua ezagutzen. Baina 2. Jauhilerako badut zer-bait gehiago prestatua: Paris, Berlin eta Londres bisitatzeko espero dut. Eta denbora baldin badaukat, Suezia joatea ere gustatuko litzaidake.

• **Belgikan biziorik bai al da?**

Bai txokolatea eta zerbeza. Bertako txokolatea hobereana dela diote (hala ote da ba!) eta zerbeza ere bai. Taberna batzutan 30 klase zerbeza ere badaude. Edale finak dira, Euskal Herritarrak bezala. Hala ere parrandara ateratzen garenean gure poteoaren martxa ez du inork jarraitzen!

• **“Erasmus orgasmus” egia al da?**

Ez ez, horrek egiatik ez du batez! Beno, nere kasuan ez behintzat. Je je!

• **Azken galdera: Zer esango zeioke hemendik atzerrira ikastera joateko aukera duen edonorri?**

Oso esperientzia aberasgarria dela eta bizitzan honelako aukerak gutxi izaten direnez, aprobetxatzeko, bai ikasteko eta baita jende ezberdinarekin erlazionatzeko ere, honelako eskolarikan (karrerarikan??) ez da eta.

Kontsulta bat ba omen zuen *adibino* batek, edo iragarle batek. Eta hantxe atean jartzen omen zuen: *adibinoa*, iragarlea. Atea jo du eta: “kan, kan, kan”. Eta barrutik hotsa:

- Zein da?
- Joder, a ze *adibinoa*, banoak hemendik!

Gizon bat traktorean trankil-trankil doa, eta halako batean atzetik motor bat etorri zaio, traktorea jo eta airean joan da hogei metro. Traktoreko gizona ziztu batean joan da eta esan dio:

- Minik hartu al duzu, minik hartu al duzu?

Eta besteak:

- Aizu, hurrengoan trapu gorri bat-edo jarri atzean!
- Bai! Traktora ez duzu ikusi, eta trapu gorria ikusiko duzu zuk!

Familia batean denak bildu omen dira eguberrietan, eta gazteak aitonari galdetu dio:

- Aitona, aitona! Ikusi al duzu nire tripia?
- Ez, eta zuk pasilloko elefantea?

Aita-semeak sukaldean, eta semeak esan dio aitari:

- Aita, aita, begira, nik Alemaniara joateko asmoa dut, eta Alemaniara joan egingo naiz.

Eta aitak, egunkaria irakurtzeari utzi gabe:

- Beno, nahi duzuna egin ezazu, baina sei t’erdietarako etxean.

Hileta baten ondoren, gorpua bertan zela, denak etxean elkartu ziren. Eta kristoren pena, eta gorputzaren aurrean batek:

- Ez gara deus ere, ez gara deus ere.

Eta ondokoak:

- Gu ere ez, baina kafea ematen dute eta.





Hizkuntzaren jabekuntza

NOLA JABETZEN gara hizkuntzaz? Eztabaida zaharra da, eta badaude gutxienez bi iritzi nagusi.

A.- Hizkuntzaren inguruko ezagutza guztia ikasia da. Alegia, dena ikasten dugu, edo

B.- Hizkuntza jaiotzatik dugun ahalmenaren ondorioa da

Chomsky izeneko adituak hau dio: haurrak esaldi eta hitz kopuru mugatua entzuten du, baina infinitu esaldi sortzeko ahalmena du. Inoiz entzun ez dituen esaldiak egin ditzake. Nola liteke, bada, esperientziak ematen diona baino gehiago jakiteko gai izatea? Hizkuntz esperientziak hizkuntz ezagutza bideratzeko azalpenik ez badu, hizkuntz ezagutzarako beste iturriren bat edo batzuk izan beharko ditu haurrak

Chomsky-k auzi honi ematen dion erantzuna hau da: haur jaioberriek nolabaiteko berezko mekanismoak dituzte eta gramatika zuzen ikastera bultzatzen dituzte. Bestela esanda, badago hizkuntzaz jabetzeko nolabaiteko osagai genetikorik.

Hau frogatzeko modurik onena hizkuntz asaldurak dituen jendea aurkitzea da. Ikusten bada hizkuntzaren jabekuntzan gurasoengandik seme-alabengana ezintasunen bat edo akatsen bat transmititzen dela, genetikoa dela esan liteke (gaizki erakutsia ez bada).

Herentziazko hizkuntz asaldura honek gene soil bati loturik egon daitekeela iradokitzen du. Genetistek gene hau identifikatu beharra dute, baina ikerketa oraindik lehen fasean egonik, ikerlari gehienak ondorioak ateratzeko beldur dira.

Jaiotzez dugun gaitasun horri, ezaugarri horri, gramatika unibertsala deitzen diote.

Baina nola ulertzen dute sortzaileek delako Gramatika Unibertsala? Nola liteke gramatikaren eta sintaxiaren jabekuntza bideratzen duen ahalmena gizakiok genetikoki daukagula esatea?

Garuna, gakoa

Chomskyren galdera hau da: Gizakiak duen esperientzia hain mugatua izanik, nola azal daiteke ezagutza-sistema hain zehatza eta aberatsa izatea?

Bere iritziak, garuna da guzti honen gakoa. Garatu dugun garunak giza ulermenaren eta pentsamenduaren oinarria izan behar du.

Gizakiok eta gainerako animaliak bereizten gaituen ezaugarriarik bat hitz egiteko ahalmena da. Gure munduaren historian zehar, mutazio genetikoen eta aukeraketa naturalen ondorioz, organismo-espezie berriak sortu dira. Adibidez, pentsa dezakeen eta mintza

daitekeen izakia sortu da: *homo sapiens sapiens*-a, alegia. Gizakiok hizkuntza darabilgun bakarrak gara, eta gizaki orok ezagutzen du ahalmen hori.

Hizkuntza, gauzak ulertzeko eta pentsatzeko eraiki dugun sistema da. Edo zehatzago esanik, giza garuna hizkuntzari esker garatu da. Gizakiok, beraz, neurri batean behintzat, hitz egiteko ahalmena heredentzia genetikoki zor diogula pentsa dezakegu.

Dakigun datu garrantzitsua da hizkuntza garunean sortzen dela. Datu hori orain oso onartuta dago, baina ez da batere begibistakoa. Hortik aurrera gauzak konplexuak dira. Garunari buruz egindako esperimendu gehienak animalietan egin dira, baina animaliek ez dute hizkuntza erabiltzeko ahalmenik, ez gure moduan behintzat. Beraz, esperimendu horiek ez dute gauza handirik argitu hizkuntzari dagokionez.

Hala ere, neuronon antolamenduari buruzko datu asko jaso dira. Gainera, garuna ireki gabe barrua irudi bihurtzeko metodoak garatu dira, erresonantzia magnetikoa edo elektroenzefalograma, adibidez. Metodo horiek garuna «lanean» ikusteko aukera eskaintzen dute. Hizkuntza erabiltzean martxan ari den garunaren zatia zein den jakin dezakegu, behintzat.

Gramatika unibertsala, baina hizkuntza ezberdinak

Beraz, gizakiok biologikoki, genetikoki, badaukagu nolabaiteko hizkuntz gaitasuna. Gaitasun hau, hizkuntza partikularren gaitetik dago. Nolabait, giza hizkuntza partikular guztiak batzen dituen sistemaren bat izan behar du. Jaiotzen garenean, edozein giza hizkuntza ikasteko prestatuta gaude. Jaiotzen garen tokiak edo inguruak baldintzatuko du zer hizkuntza ikasiko dugun.

Hala ere, gizakiok, edo beharbada hobe haurrak, inguruan gizakiak, pertsonak, eduki gabe ezin dezakete hizkuntza zehatz bat ikasi. Edozein hurrek edozein giza hizkuntza ikasi badezake, argi dago hizkuntza partikularrek ez daudela biologikoki hornituak. Guraso armeniarrek dituen haurra inguru euskaldunean jaiotzetik hazten bada, inork ez du zalan-tzan jarriko haur horrek euskara ikasiko duenik.

Egin diren ikerketen arabera oso goiz, urte bi inguru, hasten dira haurrak gramatika-ezaugarriez jabetzen. Esaldiaren oinarriko egituraz hiru urterekin, gutxi gora-behera, jabetzen dira. Hau hainbat hizkuntzatan ikusi ahal izan da: euskara, alemaniera eta frantsesa, adibidez.

Eta nola ikasten dute: entseiu/errakuntza bidez ikasten ote dute? Gramatika eta sintaxia behintzat ez. Hitzegia beste kontu bat da. Agian, hitzak banaka ikasiko dituzte, eta hor baliteke nolabaiteko entseiu/errakuntza sistema erabiltzea.

Errepikatze hutsez ez dute ikasten, bestela "ponido" ez lukete esanen. Araua ikasi dute, nahiz eta inork ez dien araua denik azaldu. Nola, orduan? Teoria hauen arabera, jaiotzez dugun gaitasun horrek azaldu dezake hizkuntzak nola ikasten ditugun.

Eztabaida: hizkuntza errazak/zailak?

Eztabaida: hizkuntza batzuk besteak baino errazagoak. Batzuen ustez, bai. Sistema ezberdinak dira, batzuk konplikatukoak besteak baino (aditz sistema, adibidez, euskaraz gaztelaniaz baino konplikatua). Beste batzuen ustez, ez. Hizkuntza batzuk zailagoak badira, zergatik ikasten dute

munduko haur guztiek adin berdintsuan hitz egiten? Zailagoa bada, umeez denbora gehiago beharko lukete, ezta?





2005 GOIZUETA - ARANO

Bidean (11)	Zerbitzua euskaraz (9)	Zerbitzua eta lana euskaraz (2)
<p>Ansa janari-denda Apezetxea Egurrak Benta berri jatebrea Botika Goizuetako estankoa Gure Ametsa taberna Kontsejupe ostatua San Roke elkarte Zeferino Apezetxea eta semeak Zumarra burdindegia</p>	<p>Amaia okindegia Antton Huizi Egurrak Elordi jatebrea Gure txoko Iskibi Kanpina Mike ileapaindegia Umore Ona elkarte Untxalo liburu-denda Urrutinea ostatua Ximon harategia Zubiondo taberna Basahauntz eta arrantzale elk.</p>	<p>Goizuetako gazte asanblada "Gurasoak" guraso elkarte</p>

NAFARROA

• historia

• kultura

• nortasuna

• hizkuntza

• idiosin • euskara

• oraina

• etorkizuna

GUREA DELAKO, GUZTION ESKUBIDEA DELAKO



♦ Euskara ikasteko aukera izatea.

♦ Administrazio publikoak errespetuz eta berdintasunez artatzea.

♦ Gure seme-alabei hezkuntza euskaraz ematea.

♦ Guztion ondasuna zaindu eta zabaltzea.

♦ Eremu publikotan errespetuan oinarritutako elkarbizitza bermatzea.



NAFARRAK GARA, DENOK ESKUBIDE BERAK IZATEKO....

Euskara OFIZIALA!!!

OINARRIAK



ZURE TXANDA



**Zigor
Sagardui**

31 urte

Zerk ekarri zaitu Goizutara, bihotzak edo buruak? Bihotzak

Zer aurkitu duzu Goizutan kanpon ez zenuenik? Neska

Goizutan kanpotar sentitzen al zara?

Ez, ya ez. Igual hasieran bai...

Goizutar izatea zer da zuretzat?

Ba, ez dakit, ni bilbotarra naiz... beno, adopzioz goizutarra.

Zergatik Goizutan?

Herri polita delako eta ongi sentitzen naizelako.

Etxea erosi edo alokatu?

Aukera izan ezkerer erosi, baina momentuz al-kilerren gaude.

Goizutan bizitzearen alde onak?

Jendearen arteko harremana (Bilbon ez dena), lasaitasuna,... Hiri batek nekatu egiten du batzuetan.

Ta txarrak?

Errepideak! Hiri batean dagoen zarata hori ere ez dauka eta noizbehinka ongi etortzen da, baita jendeak zu ez ezagutzea ere.

Goizutako giroa, parranda eta jendeari buruz hitz pare bat:

Parranda gutxi baina arrunt onak, ta jendea irekia da.

Zein izan zen Goizutak sortu zizun lehenbiziko inpresioa?

Ez naiz oroitzen, egia esan.

Oraingoarekin bat heldu dela uste al duzu?

Seguraski ez, ze gero giroan sartu eta jendea ezagutzean gauza asko aldatzen da.

Goizutan betiko?

Bai.

Zer moduz zure euskara?

Ongi.



**Ziortza
Eitzagirre**

27 urte

Zerk eraman zaitu Donostiara bihotzak edo buruak? Bihotzak, buruk ez.

Zer aurkitu duzu Donostin Goizutan ez zenuenik?

Erosotasuna, lana bertatik bertara... Pareja ta lanak ere bertan dauzkit.

Kanpoan goizutar sentitzen al zara?

Hori dudik gabe, ni goizutarra beti.

Goizutar izatea zer da zuretzat?

Dena. Han hezitu naiz ta nere herria da. Ttikitako bizipen guzik, launak, kuadrila, itxekok... goizutarrak dira.

Zergatik Donostian?

Horrela atera zelako. Tarteko bidea bilatu behar zen, mutila Mutrikukoa izanta.

Etxea erosi edo alokatu?

Berez nahiago erosi, bino zaila da. Donosti baten ezin duzu permititu. Txabola bat egin beharra Igel-don!

Donostian bizitzearen alde onak?

Aukera asko entretenimendu aldetik, lana bertan, zure airera ibiltzen zara, inorrek kotileatu gabe, kotxerik hartu beharrik ez... Erosotasuna, gehienbat.

Txarrak?

Ez dela Goizutan bezala, denak ezagunak ta denari kaso egiten diezula, badakizula edozeinek laguntza emanen dizula, kanpora atereta beti zemette egonen dela... Hemen zuk zurea bilatu behar duzu. Udan, atzerritar gehiegi ta, bestela, aparkatzeko...

Donostiako giroa, parranda eta jendeari buruz hitz pare bat:

Gu gustura, gure taldea egin dugunez. Zortea izan du dugu bertako kuadrila harrapatuta.

Zein izan zen Donostiak sortu zizun lehenbiziko inpresioa?

Haundia, Goizutakin konpatuta! Institutora etortzen nintzenen, galdu egiten nintzen.

Oraingoarekin bat heldu al da?

Ez, orain ezagutzen dut eta herri ttiki bat bezala da. Pentsatzea ere autobusan ibilbidea egiten nuela ez galtzeko!

Donostian betiko?

Uf, ezतिकit! Hori ezin da esan. Hombre, ez zitzaidan inportako, bino ez dago zure esku.

Ta gaztelaniarekin zer moduz?

Betiko martxan, gaizki. Mejotu gabe. Lagunekin erdaraz arituta ere, Goizutan denbo pixkot pasa ta berriz ere ahaztu egiten zait.